

# JAN ETA JABE

ELIKADURAREN BIDEZ,  
HERRIA ERAIKITZEN

## TASIO ERKIZIA



### SAIAKERA KOADERNOA

ISBN: **978-84-18252-81-5**

ORRIALDEAK: **112**

FORMATUA: **12 x 19**

PREZIOA: **11,00 €**

Iparrorratza saila **4**

“Nire ametsa da hemendik hogeitun urtera auzo eta herri guztietan kontsumitzaile-taldeak eraiki eta kontsumo bideragarria sustatzen duten proiektuak sustatzea; horietan antolatuta dagoen jendea populazioaren % 10a izatera iritsiz gero, eraldaketa handia litzateke Euskal Herriko burujabetzan”.

## JAN ETA JABE

### ELIKADURAREN BIDEZ, HERRIA ERAIKITZEN

Tasio Erkizia Almandoz

2021  
AZAROA

Mendebaldean, jatea ekintza aski arrunta da, ohikoaren zentzuan, bai eta beharrezkoa ere; hain zuzen horregatik du dimentsio sozial eta politiko ikaragarria. Esperientziatik eta konbentzimendutik idatzitako saiakera didaktiko honetan, elikadura estrategikotzat aurkeztuko zaigu, nazio baten ekonomia, osasuna, kultura eta izaera uztartzen dituen esparrua delakoan. Egun nagusi diren nekazaritza intentsiboa eta agroindustria hizpide hartu eta, alternatiba gisara, zirkuitu laburraren, ekonomia zirkularraren eta saltoki kolaboratiboaren alde egiten du. Egunez egun bestelako gizarte eredu bat eraikitzeko bidean lanabes izan nahian, liburuxka honek Euskal Herrian martxan diren proiektuak ezagutzera eman eta plangintza-manifestu adostu baten beharra agertzen du, bai eta botere eraldatzaileen arteko sinergiak proposatu ere. Elikadura baita, akaso, multinazionalen murrizketatik askatzeko eta euskaldun jendea eta herria saretzeko alor oinarritzkoena.



#### TASIO ERKIZIA ALMANDOZ

1943 Lesaka (Nafarroa, Euskal Herria). Apaiz ordenatu zen eta Psikologian lizentziatu. 1971. urtetik aurrera Karmelo ikastolan eskolak ematen hasi zen eta bertoko zuzendari ere izan zen. Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen eta geroztik hamaika lan egin ditu ezker abertzalean eta herri mugimenduan; esate batera, Errigora ekimenaren bultzatzaileetako bat da, eta Labore Oartso eta Labore Bilbo elikaduraren aldeko proiektuen garapenean parte hartu du.

